



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Arriaga Antzokiak omenaldia egingo dio Luis Mariano ahaztezinari kontzertu batean, Ismael Jordi tenorraren eskutik

- Jerezko tenor bikainak Luis Marianoren errepertorioa abestuko du, musikari handiek lagunduta eta Rubén Fdez. Aguirre maisuaren zuzendaritza musikarekin.
- Calixto Bieito arduratu da, elementu bisualak eta irudiak baliatuta, tenor handiaren bizitzan eta obran zehar ibilbide emozional bat proposatzen duen ikuskizun musikal hau eszenaratzeaz.

**Bilbo, 2022ko martxoaren 16a.** – Arriaga Antzokiak, datorren igandean, martxoaren 20an (19:00etan), gure artista handienetako bati, XX. mendeko abeslari handienetako bati, omenaldia egin nahi dion ikuskizun musikal eder bat oholtzaratuko du. Ikuskizuna Arriaga Antzokiak ekoitzi du eta **Luis Mariano** tenor handiari (Irun, 1914ko abuztuaren 13a – Paris, 1970eko uztailaren 14a) egiten zaion omenaldia da. Eta, horretarako, bere errepertorio ahaztezina interpretatuz, **Ismael Jordi** tenor jereztar bikainak parte hartuko du: nazioarteko ibilbide sendoko abeslaria da, ohikoa agertoki handietan, eta laster, bere mailaren adibide bat jartzearen, New Yorkeko METen debuta egingo duena.

Ismael Jordik dotoreziaz interpretatuko du Luis Mariano, abeslari irundar ospetsuari ahalik eta omenaldirik onena eginez. Ikusleak hunkitu egingo dira, zalantzarik gabe, haren irudia eta obra gogoratuz, eta Jordiren ahotsean hainbat belaunaldiren bizitza markatu zuten abestiak entzunez, hala nola Violetas imperiales, La fiesta bohémienne edo La belle de Cadix, besteak beste.

**Rubén Fdez. Aguirre** arduratzen da musika-zuzendaritzaz eta, horrez gain, pianotik gidatuko ditu partiturak. Talde instrumentala maila handiko musikariek osatzen dute: **Charles Bingham** biolinistak, **Ignacio Araque** biolontxelistak, **Luis Alberto Requejo** klarinetistak eta **Narciso Gómez** perkusionistak.

Arriaga Antzokiak antolatutako ikuskizun musikal honek oso izenburu iradokitzailea du: **Luis Mariano. Sin fronteras. Canciones e imágenes para el recuerdo.** Eta **Calixto Bieito**ren ikuspegi eszenikoa izango du, zeinak eszenaratzean elementu bisualak eta irudiak sartuko baititu. Helburua da ikusleei ibilbide emozional bat eskaintzea Luis Mariano tenor handiaren bizitzan eta obran barrena. Luis Mariano Irunen jaio zen, mugaren alde honetan, eta Arrangoitzen dago lurperatuta, mugaren beste aldean. Mugaren alde batean zein bestean bizi izan zen eta arrakasta handia lortu zuen bietan ere, Espainiaren zein Frantziaren ondareko artista bihurtuz.

### ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 18 eta 36 euro artean (beherapenekin)

- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

# ***Luis Mariano***

## ***Sin fronteras. Canciones e imágenes para el recuerdo***

Musika-zuzendaritza eta pianoa: **Rubén Fdez. Aguirre**  
Zuzendaritza: **Calixto Bieito**

Tenorra: **Ismael Jordi**

Biolina: **Charles Bingham**  
Biolontxelo: **Ignacio Araque**  
Klarinetea: **Luis Alberto Requejo**  
Perkusioa: **Narciso Gómez**

**Arriaga Antzokiaren ekoizpen berria**

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)